

*Julene Azpeitia*  
*Lehiaketa 2007*

*Ipuinak eta bertso-paperak*



# JULENE AZPEITIA LEHIAKETA



2007. urtea

Argitaratzailea: \_\_\_\_\_



**DURANGO**  
Udala • Ayuntamiento

Laguntzailea: \_\_\_\_\_



**Bizkaiko Foru  
Aldundia**  
Kultura Saila

*Argitalpen honek Bizkaiko Foru Aldundiaren  
Kultura Sailaren laguntza jaso du*

*Izenburua:* Julene Azpeitia Lehiaketa. 2007. urtea  
*Azala eta barruko marrazkiak:* Imanol Larrinaga  
*Argitaratzailea:* Durangoko Udala  
*Maketazio eta fotomekanika:* Gertu. Oñati  
*Inprimategia:* Gertu. Oñati  
*Lege Gordailua:* SS-1568-2007  
2007ko azaroa

# aurkibidea

<b>HITZAURREA</b> .....	5
<i>Mari Jose Balier Orobio-Urrutia</i> <i>Euskara eta Kultura Batzordeko presidentea</i>	
<b>IPUINAK</b>	
GOMA BATEN ISTORIOA .....	9
<i>Iris Azkarate Elejabarrieta</i>	
HIRU OPARIAK.....	17
<i>Maidar Gonzalez Etxegibel</i>	
AMETSEI JARRAITZEA .....	25
<i>Ainhoa Ardanza Cuevas</i>	
YAHSELEST .....	33
<i>Ane Arbeo Sarriugarte</i>	
MUSU BATEN BILA.....	41
<i>Itziar Lauzirika Salegi</i>	
MEREZI AL DU? .....	51
<i>Mikel Gandarias Jaio</i>	
TRENAREN MARTXA .....	59
<i>Leire Gorroño Albizu</i>	
NORAREN EGUNKARIA.....	77
<i>Modesto Arrieta Illarramendi</i>	
<b>BERTSO PAPERAK</b>	
NIRE MAITEA .....	87
<i>Garazi Sarrionandia del Hierro</i>	
AMA, ZERGATIK...? .....	91
<i>Eñaut Uruburu Martinez</i>	



# hitzaurrea

Oraingo honetan ipuin eta bertso-paper lehiaketa honi izena eman zion emakumea ekarri nahi dut gogora: Julene Azpeitia. Bere adore, ahalegin eta ekinari esker haur literaturan zegoen hutsunea betetzea lortu zuen emakumea alegia.

Julenek, besteak beste, maistra-lanetan jardun zen Zornotzako Dueda auzoko San Migel eskolan eta baita Abadiñoko Mendiola eta Matiena auzoetan ere. Irakaskuntza-metodo berriak jarri zituen praktikan eta, honela, pedagogo aurreratua eta metodologia berritzaile bilakatu zen: ezagunetik abiatuta ezezagunera iristea proposatu zuen eta, horrexegatik, behar beharrezkoa iristen zion irakaskuntzan ama-hizkuntza erabiltzeari: euskara.

Emakume handi hau omendu nahian, Durangoko Udalak hogeitun urte daramatza Euskara Sailak antolatzen dituen haur eta gazte mailako lan sarituak argitaratzen.

Aurten ere liburu eder bat argitaratzen dugu, eta ederra diot ederrak direlako liburu barruko ipuin eta bertso-paperak eta baita testuon lagungarri diren marrazkiak ere.

Durangon, 2007ko azaroan

*Mari Jose Balier Orobio-Urrutia*  
*Euskara eta Hezkuntza Batzordeko Presidentea*



julene azpeitia  
lehia keta  
2 0 0 7







**Iris Azkarate  
Elejabarrieta**

Irabazlea 11-12 urteko sailean  
Kurutziaiga Ikastetxea

*Favada  
gona  
non*



# Goma baten istorioa

## Goma baten istorioa

Kajoia beltz zegoen. Oraindik 8:30ak ziren eta nire lagun Orrazi, Gantxo eta Diademak lo segitzen zuten. Ni, ileko goma guztiak bezala, goiz jaiki nintzen. Egun berri bat zegoen gure kajoitik kanpora eta banekien Marina nire jabe zintzo eta alaiak laster aterako ninduela nire bizileku itsusi eta deserosotik. Egia esan, ez zen horren deserosoa Orrazi, Gantxo eta Diadema bezalako lagunak izanda. Orrazi, hortzen erdiak apurtuta zituen orrazi xeble bat zen. Txistek kontatzea gustatzen zitzaion eta bere bizitzako zatiak kontatzen ere abila zen. Orrazi, zaharkiturik egon arren, oso jatorra eta alai zen. Gantxo berriz, bere itxura zaintzea gustatzen zitzaion gantxo bat zen. Hala ere, ez zen batere harroputza, zuek gizakiok ikusten dituzuen pelikuletan bezala. Gantxok, azal leuna eta laranja kolorekoa zuen. Beti bertsotan hitz egiten zuen. Diadema, emakume eder askoa zen. Kolore asko zituen bere gorputz finean barreiatuta eta Marinak askotan janzten zuen. Beti zegoen edonori laguntzeko prest eta askotan elkarrekin egoten ginen hizketan. Ni nintzen denetan isilena. Nire gorputz beltz eta pisu gutxikoa oso erraz mugitzen nuen, eta horregatik lasterketetan beti lehena geratzen nintzen. Aspalditik konpartitzen nuen kajoia nire lagunekin, Marinak 8 urte zituenetik. Orduan 11 zituen. Gure alboan gure etsaiak bizi ziren: Kolonia jauna, Baselina anderea eta hauen semea, Eraztun Txiki. Hiru hauek beti zebiltzan guri adarra jotzen. Gu baino askoz ere lehenagotik bizi ziren komuneko kajoia honetan.

- Marina! Garbitu haginak eta orraztu zaitetz, eskolara joan behar duzu eta! – entzun zen amaren ahotsa.

- Bai ama, banoa! –erantzun zion Marinak.

Berehala, haginak garbitzean ateratzen den hotsa entzun genuen.

- Listo- esan zuen Marinak -orain orraztu eta kito.

Kajoia zabaldu eta Orrazi eta ni atera gintuen. Marinak urdin koloreko kamiseta bat eta praka gorri batzuk zituen jantzita. Bere begi marroi handiek eta bere aho irribarretsua pozik zegoela adierazten zuten. Marina ez zen oso altua, baina oso esku ona zuen bere burua orrazten. Beti bezala, bi buelta emanda lotu ninduen bere ile goxo eta ilunera.

Ikastolarako bidean, Marina bere lagun Anerekin elkartu zen.

- Kaixo Marina -esan zuen Anek.

- Kaixo Ane -erantzun zion Marinak.

Bidean, hizketan aritu ziren bi lagunak. Ikastolara heldu zirenean, bakoitza bere mahaian jarri eta liburuak atera zituzten. Berehala sartu zen Ingurumeneko irakaslea.

- Kaixo denoi -esan zuen- Gaur gai berri bat hasiko dugu: ura. Dakizuen bezala, ura beharrezkoa da...

Orduan, nire betazalak pisutsu sentitzen hasi nintzen eta apurka-apurka lo hartu nuen.

Itzartu nintzenerako jada eguerdia zen. Marina bazkalduta zegoen eta telebista ikusten ari zen. Ni salako mahaitxoan nengoen, aldizkari eta egunkariaren gainean. Itxaroten geratu nintzen Marinak bere ilean noiz lotuko zain.

Baina ez zen horrela gertatu. Marinak bere ilean beste goma bat lotu zuen eta ni eskumuturrean jarri ninduen.

Ondoren, ikastolara joan ginen. Klase aspergarri batzuen ostean, azkenean kanpora irten ginen. Ane eta Marina berriro elkartu ziren.


- Zer Ane, ba al daukazu gogorik saskibaloia partidua jokatzeko? -galdetu zion Marinak Aneri.

- Tira -erantzun zion Anek- , ez daukat gogo handirik, baina ahal dudana egingo dut.

Saskibaloia kantxara joan ziren eta partidurako arropa jantzi zuten.

- Ba al du inork goma bat? -galdetu zuen Ane beroketak egiten ari zirela.





- Bai! Tori Ane -erantzun zion Marinak. Eskua nigana eraman eta besotik atera ninduen, Aneren eskuetan utziz. Anek hartu egin ninduen eta gero mila bueltarekin lotu ninduen. Ezin nuen arnasarik ere hartu. Ezin nintzen mugitu eta ez nuen batere ikusten. Gainera, Ane pila bat mugitzen zen eta horrekin zorabiatu egin nintzen. Oso sentrazio berezia zen niretzat, Marina ez ninduelako horrenbeste estutzen eta berak zer egiten zuen ikusi ahal izaten nuelako.

Ditxosozko partidua bukatu zenean, Anek eskua burura eraman eta askatu egin ninduen. Nik zatitan apurtuta nengoela sentitu nuen. Izan ere ez zen gutxiagorako.

- Oi Marina, barkatu! -Esan zuen Anek, nire gorputz zauritu gaixoa ikusi zuenean. Erdi apurtuta nengoen, eta luze-luze eginda. -Bihar ekarriko dizut beste goma bat!

Marinak triste begiratu zidan. Ondoren etxera joan eta armairuan sartu ninduen.

- Gomatxo laztan hori, zer zaizu gertatzen? Zu horrela ikusiz ez naiz ni alaitzen!  
- esan zidan Gantxok.

- Ene bada! Zer gertatu zaizu? -galdetu zidan Orrazik.

- Gaixoa! Nolako bihotz gutxi duten gizakiek! -esan zuen Diademak.



Nik ahal izan nuen bezala kontatu nuen gertatutakoa, eta beraiek ahal zuten gehien lagundu zidaten.

Hurrengo gabea, Marinak gure kajoia zabaldu eta ni bezalako goma more bat utzi zuen. Gu laurok, berarengana hurbildu ginen eta gure izenak esan genizkion. Ondore hizketan jarraitu genuen eta lagunak egin ginen.

Harrezkero ez naiz berriz kajoitik irten. Hala ere, oso pozik bizi naiz, Moretxo goma eta ni nobioak baikara. Egunez, Orrazi, Gantxo eta Diademarekin egoten naiz eta arratsaldetik goizera Moretxorekin.







**Mainer  
Gonzalez Etxegibel**

Akzesita 11-12 urteko sailean  
Kurutziaga Ikastola



# Hiru opariak

## Hiru opariak

Mohamed dut izena eta ile leun marroi iluna dut, hemengo Atfek arbolaren hostoen antzera; begiak berdeak, herri honetako Aslaham belarraren kolorekoa; sudurra fina baina puntan, ahoa handia eta ezpain finak. Aho handiaren barruan hagin zuriak, Itsaso Atlantikoko perlen moduan, baina bi hagin, jauzita ditut. Fezen bizi naiz, Marokon, eta herri honetako gizon guztiak duten moduan, nik ere bibotea dut, bibote beltz eta gogorra, edozein harriren antzera.

Nire familia da mundu honetan gehien maite dudan gauza. Pertsona bat maite dut batez ere: nire biloba Naen. Berak eta besteak ere asko maite naute, horregatik festa txiki bat antolatu behar dute nire laurogeita piko garren urtebetetzea ospatzeko. Oso urduri nago zeren hirurogeita hamasei urte ezkondata egon eta naiz eta, pasa den urtean, nire emaztea hil egin zen gaixotasun larri baten eraginez: bihar Sihalane emaztea ez da nirekin egongo, betiko moduan, Anikret pastela egiteko. Hil zen egunean ia-ia ni ere hil egin nintzen, oso triste nengoen eta. Ez nuen ezer ere egiteko gogorik, nire lan-postura joateko eta lan egiteko gogorik ere ez nuen. Baina nire lan-postura joan behar nintzen lan egitera, nire paita-arrautzen dirua behar bainuen aurrera jarraitzeko. Diru horri esker nire bizitzak aurrera jarraitu du.

Gaur oso arin sartu naiz ohera nire urtebetetzea heltzeko irrikan, eta Sihalaneekin amets egiten nuen bitartean nire urtebetetzea heldu da laino gris batekin.



Gaur goizean iratzarri eta, nire urtebetetzea zela pentsatu baino lehen, leihora begiratu dut, zerutik tantatxo batzuk jausten ziren, Fez guztia goitik behera blai utziz. Denbora asko pasatu eta gero, nire erlojura begiratu eta berriro ere ohera sartu naiz goizeko seiak laurden gutxi eta jaieguna zelako, nire pentsamenduetan Sihalanek zorionak esaten zidan bitartean.

Goizeko hamarrak eta hogeita bostean muxu askok itzartu naute. Nire familia da, zorionak esatera etorri dira. Altxatzen nintzen bitartean bi negar-anpulu jauzi zaizkit astiro-astiro, bat pozik nengoelako nire familia guztiarekin eta bigarrena, triste nengoelako, Sihalanen falta sumatzen nuen eta.

Eskatzerantz goaz gosaltzera, baina heldu baino lehen, etxeko pasilloa zeharkatu dugu beste hiru gelei kasurik egin gabe: komuna, umeen logela eta egongela oso txikia. Eskatzera heldu garenean, egurrezko mahai gainean Anikret pastela zegoen eta bere gainean laurogeita hamazazpi zenbakia argizariz eginda. Pastela ikustean emaztearekin gogoratu naiz eta berarekin batera nire urteekin. Ez nituen gogoratzen, denbora asko pasatu da eta.

Pastela jaten amaitu dugunean, eta niri zorionak abesten, arrautzak hartu eta lanera joan naiz.

Arratsaldea da etxera heltzen naizen momentua, ez dugu bazkaltzen ez dugulako hiru bazkari erosteko edo prestatzeko dirurik, eta horregatik bi




bazkari bakarrik egiten ditugu: gosaria eta afaria. Etxera heldu naizenean saldu barik gelditu diren arrautzak eta dirua eskatzean utzi eta egongelara joan naiz. Familia guztia elkartu gara egongelan nire urtebetetzea ospatzeko. Egongelara sartu, nire tela gainean jesarri eta Naenek eta nire beste biloba Asmarrek hiru erregalu utzi dituzte gela Erdiko egurrezko mahaian. Periodiko paperarekin estalita daude. Periodiko papera erabiltzen dugu opariak batzeko, hori eginda ez dugu batzeko paperik erosi beharrik eta, lehenengo irakurri egiten dugu eta gero edozein gauza batzeko erabiltzen dugu.

Lehenengo eta behin bat hartu dut, apurka-apurka papera kentzen hasi naiz. Periodiko paperak gorri kolorea du, horregatik lehenengoa hartu dut, gorria nire kolorerik gustukoena da eta. Azkenean nire bihotzak taupada bizkorragoak egiten zituen bitartean papera kendu diot eta, Basamortuko arrosa ikaragarri bat da!

- Ez da Basamortuko arrosa normal bat -Esan dit Asmarrek.
- Basamortuko arrosa magikoa da Aitana -Kontatu dit Azurrek- Nik neuk aurkitu nuen Saharan, bertara joan ginenean!
- Hau gure oparia da, eta triste sentitzen zaren bakoitzean arrosa zure bihotzaren kontra jarri eta tristura guztiak joango zaizkizu. -Jarraitu du Naenek.

Geroxeago arrosa mahaiaren ertz batean utzi eta bigarren oparia eskuetan hartu dut. Opari honen periodikoak ez du kolorerik: zuria eta beltza da. Lehenengo oparia zabaltzerakoan baino lasaiago nago, dena dela, urduritu eta oparia zabaltzen hasi naiz, hau apurtxo bat arinago. Bat-batean gelako leihotik haizea sartu eta opariaren papera kendu dio, babutxa batzuk dira, babutxa gorriak, erdian marrazki txiki batekin!

- Babutxa hauek ez dira magikoak, baina seguru zure txikitako abenturak gogoratzen dizkizutela. -Esan du nire alaba Jasahrek.
- Opari hau nagusi guztiak oparitu dizugu. -Esan dit Samirrek, Jasahren gizonak.
- Azkeneko opari hau ez da hemengo inorena. -Jarraitu du Advagek,



nire semeak. Opari hau Sihalanekegin edo erosi egin zuen zuretzat hil baino lehen, guk ere ez dakigu zer den, batuta eman zigun eta.

Opari hau zabaltzen hasi naizenean nire bihotzak inoiz baino taupada gehiago bidaltzen hasi da, seguru aski Sihalaneke delako. Ia-ia ezin izan dut zabaldu, oso urduri nago eta. Azkenean, golpe batez, zabaldu dut eta gorri koloreko zetazko kaxa bat dago, nahiko handia da eta zabaltzen den tokian urrezko giltzarrapo bat du. Kaxa begiratzen hasi naiz giltza non ote dagoen ikusteko, azkenean, beheko aldean dago sartuta eta giltzaren puntan nire izena zilarrez idatzita dago. Giltza hartu eta giltzarrapoa zabaldu dut, kaxaren tapa altxatu eta zerbait tela batekin estalita dagoela ikusi dut. Kontu handiz tela altxatu eta, Sihalaneke eta nire lehenengo argazkia muxu bat ematen, nik oparitu nion eraztuna eta berari gehien gustatzen zitzaion lorea zimelduta! Ezin dut opari hau sinetsi, harrigarria da.

- Zelako polita! -Esan dute Naenek, Asmarrek eta Azurrek oso harrituta.

Nire hiru opariak ikusten amaitu ditugunean, denentzako zortzi Te berde prestatu, niretzako bat hartu eta nire aulkian jesarri naiz. Denbora luze bat jesarrita egon ondoren, Naen etorri zait. Bere praka urdinak nire Chilabaren gainean ipini eta galdetu dit:

- Aitona, gure opari guztiak gustatu zaizkizu? -nik ez diot erantzun, horregatik berriro galdetu dit:

- Opariak gustatu zaizkizu?

Baina nik ezin diot erantzun behin eta berriz galdetzen badit ere.







**Ainhoa  
Ardanza Cuevas**

Irabazlea 13-14 urteko sailean  
Frai Juan de Zumarraga Institutua



# Ametsei jarraitzea

## Ametsei jarraitzea

Txiki txikitatik gustatu izan zaizkit ipuinak eta istorio mireagarriak, irudimenari hegoak ematen dizkioten atea direlako, gauza harrigarriak. Madalen dut izena eta orain 16 urte dauzkat. Errepidean goaz ni eta nire ama, aspaldiko partez itzuliko gara amonaren etxera. Duela astebete jaso genuen osaba izeben deia, amona jada gurekin ez zegoela esanez. Amak ez zidan esan beharrik izan, telefonoz hizketan ari zela ipini zuen aurpegiak nahikoa eta gehiegi adierazten zuen. Alaba bakarra naiz eta egia esan amona ez nuen asko ezagutzen, gehienbat oso urruti bizi zelako, eta baita ere emakume bakartia zelako, baina faltan botako dut.

Denbora aurrera doa, astiro baina gelditu gabe, eta ama eta biok isil-isilik goaz, ezer esateko gogorik barik. Ezin dut isiltasuna jasan, eta musika entzutea pentsatu dut, bidaia erosoagoa izan dadin.

Halako batean azaldu da etxea bidearen bukaeran. Leku bakarti eta isil batean dago, itsasertzean, eta hondartza bat dago maldan behera jaitsi ezker, oinez hamar bat minutura.

Amak autoa gelditu du. Izeba dago etxeko ate aurrean zutik, aurpegiera arraroarekin, baina gu gabela antzeman duenean, irribarre egin du. Atea ireki eta irten naiz autotik. Segidan amak gauza bera egin du. Izebarengana hurbildu eta besarkatu dut, esanez:

- Kaixo izeba! Azkenean iritsi gara!
- Nik uste baino azkarrago iritsi zarete, oraintxe herrira nindoan janari apur bat erostera. -Erantzun zidan.

- Nik lagunduko dizut herrira, Karmen. -Esan zion amak izebari-. Ez dit asko ardura beste osteratxo bat egitea. Zer moduz zaude? -galdetu zion segidan.

- Tira, atzo baino hobeto eta bihar baino okerrago. -Esan zuen-. Bazatoz gurekin, Madalen?

- Ez. -Erantzun nuen seguru-. Ez daukat berriro ere autora sartzeko batere asmorik.

- Ongi, baina bakarrik geratu beharko duzu.

- Bale.

- Gosea baduzu hartu zerbait goiko kaxoian, ados? -Izebak.

- Zoazte lasai.

Berehala joan dira. Etxera sartu naiz.

Duela urte asko denbora gelditu zela dirudi hemen. Erretratu batzuk daude hormetan zintzilik, antzinakoak, eta baita berriagoak ere. Halako batean nire argazkia ikusi dut paretan. Zazpi edo zortzi urte inguru izango nituen orduan. Gogora etorri zait argazki hura egin zidateneko eguna. Amonarekin batera nengoen ganbaran. Niri ikaragarri gustatzen zitzaidan ganbarara igotzea, amonaren antzinako istorioak entzutera eta gauza zahar haien artean politenak aurkitzera.

Sukaldera sartu naiz. Izebaren giltzak daude mahai gainean eta haien artean zilar koloreko bat dago, ganbarako giltza. Bat-batean bertara igotzeko gogoa sartu zait, aspaldiko partez. Eskaileretan gora igo naiz eta hara non topatu dudana ganbara. Poliki- poliki ireki dut atea eta lanpara txikia piztu.

Bere jostailu guztiak batera ikusi dituen umea baino harrituago geratu naiz. A ze nolako altxorra! Amonaren marrazkietako batzuk ere badaude, amonak oso marrazki politak egiten baitzituen. Dena aztertu eta mirestea nahi nuke, dena batera.

Goiko kaxa bat jaistea pentsatu dut, eta idazmahaira igo naiz horretarako baina halako batean, krash! Mahaia apurtu da eta lurrera ziplo erori naiz.





Baina ez naiz ni eroritako bakarra. Liburuxka bat ere erori zait. Koaderno moduko bat da, eta eskuz idatzia dago. Honela dio:

**1940ko ekainaren 5a, asteartea.**

Eguneroko maitia: Gauzak ondo doaz. Denbora ona egiten du egunero eta horri esker, hondartzara bajatu naiteke arratsaldetan ezer egiteko eduki ezean. Gaur, adibidez, iluntze partean, pasieran bajatu naiz, apur bat lasaitzera. Baina gaur ez da beste egunetan bezala izan. Koaderno eta margoak hartuta egon naiz, itsasoa nola margotu jakin ezean. Baina halako batean mutil bat agertu da. Irribarre egin dit eta galdetu dit ea itsasoa margotu nahian nabilen. Baietz erantzun diot. Egia esan oso atsegina ematen zuen. Segidan esan dit: Itsasoa margotu nahi baduzu, itsasoa ikusi behar duzu.

Eta bere txalupan eraman ninduen kostaldetik urrunxeago, alde guztietara begiratzuz itsasoa ikus dezadan. Inoiz egin dudan marrazkirik ederrena egin dut eta baita oso mutil dotorea ezagutu, hau zortea! Martin du izena eta bere aitonarekin bizitzen dago herrian. Laster ikusiko garela esan dit. Hala izatea espero dut.

Hurrengo orrialdera pasatu naiz.

**1940ko ekainaren 12a, asteartea**

Gaur berriro elkartu naiz Martinekin. Denbora luzez aritu gara berbetan eta pasieran. Gero eta hobeto ezagutzen dugu batak bestea. Gero txalupa hartu eta faroa dagoen irlara joan gara eta han merienda jan dugu. Ipuin bat kontatu dit. Honelako zerbait zen:

“Bazen behin marinela bat, itsas lamien kantuak entzuten zituena gauero, bere txalupan zihoanean. Hainbeste liluratzen zuten kantu haiek ze, gau batean desagertu eta bost urtez izar bati segika joan zela itsasoan bakarrik, beharrezkoa zenean jaitsiz janaria edo ura hartzeko. Marinela mamua zela esaten zuten. Baina egun batean, irla batera iritsi zen, eta bertan biztanle batzuk baino ez zituen herrixka aurkitu zuen. Lehorrera jaistean, emakume bat ikusi zuen hondartzan kantari. Oso polita iruditu zitzaion eta berarengana hurbiltzean, kantu hura ezagutu zuen. Berak gauero entzuten zuen kantu bera zen. Kontakizunaren arabera, elkarrekin bizi izan ziren beti, pozik eta lasaitasunean.”

“Ametsak bete daitezen jarraitu egin behar zaie, errenditu gabe.” -Esan dit gero.

Agian egia izango da.

### **1940ko uztailaren 6a, larunbata.**

Nire lagun maitea,

Aspaldi izan zen idatzi nizun azkeneko aldia. Oso lanpeturik egon naiz. Egia esan, ahal dudan denbora gehiena pasatzen dut Martinekin. Asko maite dut eta oso atsegina da. Ez dakit zer egingo nukeen bera gabe. Maitemindurik nago, baina aldi berean lagunik onena bezala har dezaket.

### **1940ko irailak 10**

Hilabete daramat Martinen berririk gabe. Jaioterrira itzuli behar izan zuen anaiarekin arazo bat zela eta, baina haren berririk ez jasotzea ere...

Gainerako orrialde guztiak zuri zeuden. Istorioaren bukaera jakin nahi nuen, Amonak Martinen berririk jaso zuen ala ez edota berriz inoiz elkar ikusi zuten. Orriak behin eta berriz pasatu nituen eta gutunazal txiki bat topatu nuen. Giltza bat zegoen eta honela zihoen: Idazmahaiko ezkerreko kaxoia.

Oraindik osorik zegoen kaxoia ireki eta kaxatxoa atera nuen. Giltzaz itxita zegoen. Giltza hartu eta kaxa ireki nuen.





Lehendabizi marrazki bat zegoen, itsasoa, txalupatik marraztua, kolore biziekin eta oso dotore eginda. Gero gutun labur bat zegoen, honela zihoen:

“Faltan botatzen zaitut, baina urrunegi zaude. Ezin nahiz zure alboan egon, gauero zure kantua entzun arren. Espero dut ez zarela ni bezain azkar errendituko, amets bat jarraituko duzula, azkenean lortu arte, kontakizuneko marinela bezalaxe.

Maite zaitut.”

Gutunak hunkitu egin ninduen. Zarata bat entzun nuen behean, ama eta izeba itzuliak ziren jada, eta dena jaso eta kaxatxo gorde nuen. Nire ustez amonak bizitza lasaiaz amesten zuen eta hori lortu zuen. Eta marrazkiak egiten ere jarraitu zuen, txikitan amesten zuen bezala.

Ez dakit ametsei jarraitzea gauza ona, txarra, ala beharrezkoa den, baina ez da aholku txarra.



**Ane Arbeo  
Sarriugarte**

Akzesita 13-14 urteko sailean  
Kurutziaga Ikastola

*Fantasia  
gorri  
aren*



# Yahselest


## Yahselest

Aspaldi, 1952ko udaberrian edo, Joxe baserritik irten eta basorantz joan zen, Bizkor txakurra ondoan zeramala. Goizeko hamaikak ziren eta baserritar gazteak eguraldi zoragarri hura aprobetxatu nahi izan zuen, loretan zeuden belardi ederrak ikusteko. Txakurra ere pozik zegoen, eta bizi-bizi zebilen hemendik hara eta handik hona, segur aski bere mendi maiteenera zihoala zekielako, Mugarrara. Astiro-astiro gorantz zihoazen heinean, Bizkor gero eta lasaiago zegoen, nekatuta zegoelako agian. Gorbeiaiko artzain txakurra zen, eta Joxe asko harritu zen txakur gaztea hain arin nekatzean, gogorra eta bizkorra zelako jarri zion-eta izena.

Ordu erdi pasa eta gero, baso sakon batean sartu zirenean, Bizkor jada Joxeren ondo-ondoan zebilen, eta uluka hasi zen bat-batean. Beldur pixka bat sartu zitzaion mutil gazteari, lehenengo aldia baitzen bere txakurraren uluak entzuten zituela, beti alai eta jolasti ibiltzen zen eta. Gainera, haritz garaien artean eguzkia desagertzen hasia zela konturatu zen, eta iluntasuna ez zitzaion larregi gustatzen. Hala ere, aurrerantz jarraitu zuen, eta bere txakurra lasaitzen ahalegindu zen.

Bat-batean, sasi artean begi berde batzuk ikusi zituela iruditu zitzaion, distiratsu berari begira. Begiak zarratu eta zabaldu zituen, baina jada ez zegoen begirik sasitzan. Aurrera jarraitu eta irudipen arraroak zituela pentsatzen ari zela Bizkor zaunkaka entzun zuen, eta bere aurrean inoiz ikusitako neskarik ederrena agertu zen. Ortozik zegoen, eta izara apurto bat zuen soinekotzat. Ile gorria gerriraino iristen zitzaion. Azal zurbila zuen, eta ezpainak marrubi ederrak iruditu zitzaizkion Joxeri. Begiak sasi artean







ikusitako zituen berberak ziren, berde-berdeak. Edertasun hark izututa, korrika hasi eta ez zen gelditu baserrira iritsi arte. Bizkor berari segika heldu zen, eta basotik irtendakoan bere betiko alaitasuna berreskuratu zuen. Gau hartan itzelezko trumoa egin zuen, eta Joxek ez zuen begirik bildu.

Biharamunean, itzelezko begi-zuloekin esnatu zen Joxe, eta behiei jaten ematera joan zenean makilarik ez zuela konturatu zen. Etxe guztitik bila eta bila ibili arren ez zuen aurkitzen eta aurreko egunean korrika hasi zenean basoan botata utzi zuela gogoratu zuen. Hasieran beste bat egitea bururatu zitzaion, baina lehengoa oso gustuko zuenez haren hila joatea erabaki zuen. Gainera, aurreko egunetan ikusitako neskari buruz zerbait gehiago jakin nahi zuen, beraz, Bizkor txakurrari deitu eta abiatu egin zen. Bide erdian edo jada blai-blai eginda zituen abarkak, goizean atertu bazuen ere, putzu sakonak eta lupetza handia zegoelako. Aurreko eguneko basoan sartu zenean Bizkor bere ondoan jarri zen berriro, baina behintzat, egun hartan ez zuen ulurik egin. Joxe gero eta urduriago zegoen, eta bat-batean hosto batetik ur tanta bat erori zen lurrera, eta bertatik neska hura sortu zen astiro-astiro. Hasieran gardena zen, baina gero, benetako pertsona baten itxura hartu zuen. Baserritarrak hanka biluzietatik hasi eta aurpegiraino gorputz osoa begiradaz pasatu zuen. Inoiz baino hobeto zegoen, baina lotuta bezala sentitzen zen, nahi zuena egiteko askatasuna galdu balu bezala. Baina momentu hartan berdin zion horrek, neska bakarrik ikusten baitzuen.

- Kaixo - esan zion neskak. Joxek ez zion erantzun.

- Kaixo - esan zion berriz. - Yahselest bat naiz, gizaki maite. Zein da zure izena?

Joxek ezin izan zion erantzun, bere ahots eztiak liluratuta utzi zuen. Neska berriro hasi zen hizketan.

- Ezin duzu hitzik egin, ala? Zatoz nirekin gazte!

Eskutik ebatu zion, eta orduan Bizkorrek buelta eman eta korrika alde egin zuen. Baina baserritarrak begiak galduta zeuzkan neskarengan eta bere esku goxoa sentitu zuenean berdin izan zion bere txakurrak zer egiten zuen. Orduan, neskak eskutik emeki tiratu eta basoko txokorik ezkutuenera eramanean zuen. Kobazulo bat zen, eta sarreran errekatxo txiki bat, lore batzuk

eta eserleku bezala erabili zitezkeen harri batzuk zeuden. Yahselestak bazkaria prestatu zuen. Joxek ez zuen ezer esaten, irribarre lelo bat egin eta Yahseletari begiratzen zion, zoratuta balego bezala.

Iluntzen hasi zen. Orduan, Yahselestak sua piztu zuen, eta Joxe ez zen etxera joaten. Izarretara begira etzan ziren, eta inoiz ahaztuko ez zuen gaua pasa zuen baserritar gazteak.

Hurrengo egunean, esnatu zenean, ez zekien ondo non zegoen. Errekatxoa ikusi eta orduan gogoratu zuen gertatutakoa. Baina Yahselest ez zegoen inguruan, eta Joxek aurreko gauean neskak kendu zuen izara zuen gainean. Aurpegia garbitu eta hila hasi zen, baina ez zuen inon aurkitzen. Orduan, baserrira joatea erabaki zuen. Astiro zihoan gaztea, badaezpada, txoko guztietan begiratuz, ez zuen eta neskarengandik urruntzeko gogorik. Baina tipi-tapa baso osoa zeharkatu eta zuhaiztia amaitzen zen tokira heldu zen; basotik irten zen. Bat-batean, bere txakurra berarekin ez zegoela ohartu zen, eta makila aurkitzeko joan zela basora gogoratu zuen. Baina momentu hartan berdin zitzaion makila, eta etxerantz abiatu zen Bizkor bertan zegoen begiratzera. Heldu zenean zain



zegoen txakurra, eta bere betiko alaitasunez agurtu zuen. Txakurra ondo zegoela eta lasaiturik, eseri eta pentsatzen hasi zen Joxe. Basoan sartzean arraro jartzen zela ohartu zen, eta Yahselestekin zegoenean sorginduta bezala eta aske izango ez balitz bezala sentitzen zela pentsatu zuen.

Biharamunean horri buruz galdetuko ziola Yahselesti zin egin zion bere buruari. Baina ez zuen bere proposamena bete. Basora itzultitakoan Yahseletak bere txokora eraman zuen berriz, eta Joxe bere buruaz borrokan ibili baitzen ere, ez zuen lau egunetan alde egiterik lortu. Bere txakurraz gogoratzen zen noizbehinka, hark ez zuen basora sartzerik nahi izan eta. Baina Yahselest bere kantutxo zoragarri batekin Joxe liluratzen zebilenean, Bizkor agertu zen bat-batean, makila ahoan hartuta zuela. Yahselesti hozka egin zion, eta egun batzuk lehenago hazi zen tanta beretik desagertu zen. Orduan, eguzkiaren hitzak entzun zituen Joxek.

- Milioika urteetan gizonen gezurrezko maitasunarengandik bizi izan den izakirik arriskutsuena desagerraraztea lortu du zure txakurrak. Hainbat gizon zoratu dira baso honetan, eta zuri ere gutxi falta izan zaizu horretarako. Emazkiozu eskerrak Bizkorri, zure seme-alaben, seme--alaben, seme-alabak ere, lasai bizi izango dira eta. Eta baita zu ere.

Joxe Bizkorrek ekarri zion makila hartu eta etxerantz abiatu zen pozik, harro, zuen txakurra izateagatik.







**Itziar  
Lauzirika Salegi**

Irabazlea 15-16 urteko sailean  
Kurutziaga Ikastola

*Irabazlea*  
*15-16*  
*urteko*





# Musu baten bila

## Musu baten bila


- Kaixo izeba:

Ze polita zauden argazki honetan. Zure ile leuna solte eta gaur egun nire eskuetan ditudan betaurreko beltzekin. Artista bat ematen duzu nahiz eta dituzun belarritako handi horiek *glamour* pixka bat kentzen dizuten, ez dakit non zauden ez eta norekin.

Atzealdean, txabola erraldoi bat dago, teilatua lau egurrez osaturik du eta lau paretak beste horrenbeste. Egurren artetik hainbat mahai ikusi ditzaket denak ezberdinak eta zenbait aulki txabolaren ezker aldean pilaturik.

Zu bi mutikoren artean zaude, bai batak zein besteak, jaietan etortzen diren eta hain gustuko zenituen txiringitoetako saltzaileak dirudite. Beno, hobeto esanda, txiringitoetako saltzaileen semeak. Ezker aldean neskatxa bat, ilea kopeta batez loturik du eta aurpegia biribil-biribila. Kolore argiz du apainduta bere gorputza, arrosa eta urdinez, ziur nago zuk horrelako jantzi bat zenuela baina ez zen arrosa, urdina eta berdea baizik. Harriturik begiratzen zaitu, uste dut *glamourra* kentzen dizuten belarritakoekin harrituta dagoela, ez nau harritzen, hain dira itsusiak... Eskuma aldean, berriz, mutil bat ageri da, Mikelen nebaren antzekoa, eta lotsatia dirudi: gorri-gorri dago. Zure besoa besakaturik ageri da, asko maite zaituela dirudi, baina nik gehiago maite zaitut nire ondoan ez bazaude ere, ez ahaztu e?

Zerbait arraroa nabaritzen dut argazkian baina ez dakit zer den. Ene! aurkitu dut! Ez dute oinetakorik. Hankak lurrean dagoen harearekin nahastuta daude eta ez du ematen askotan garbitzen dituztenik.



Mikel, nirekin ikastolara etortzen den lagun baten izena da, berak nire nobioa dela esaten du baina nik ez dut bere nobia izan nahi, Pabloren nobia izan nahi dut.

Zu zerura joan zinenetik amak ez ditu eguzkitako betaurrekoak kendu nahiz eta eguzkirik ez dagoen. Amonak behin eta berriz esan dio betaurrekoak kentzeko baina hori esatean malko lodiek bere aurpegia zeharkatzen dute. Esan diot negarrik ez egiteko, zeruan bazaude aitonarekin egongo zarela eta bertan dauden aingeru guztiekin. Eman muxu bat aitonari eta beste bat zuk hartu, baina baldintza batekin, gaur gauean etorri nire ametsetara muxu horren bila eta eman beste muxu handi bat niri. Eta ez ahaztu bihar sei urte betetzen ditudala. Gabon izeba.

- Gabon Miren:

Zure muxuaren bila etorri naiz eta beste handi-handi bat ematera. Mua! Bide batez argazkiaren historia kontatuko dizut. Gogoratzen al zara atzerrira joan nintzen azkenengo aldiaz? Bertan ateratako argazkia da. ONG batekin joan nintzen, hainbat mediku, erizain, boluntario eta abaderekin egin nuen topo bertan, jende zoragarria. Heldu nintzen egunean, aireportuan itxaron ninduten bertako irakasle batek eta On Antselmo abadeak traktore zahar batekin. Hango zarata! gogoan duzu aitonaren auto zaharra? Bada ez pentsa auto zahar hark zarata ateratzen zuenik, hemengoa bai zalaparta.

On Antselmok, arkupetan eskean egoten den gizonaren antza zeukan.

Harriz egindako etxe batera heldu ginen hauts bola batean bildurik. Ez zen gure herrian ikusten diren etxeak bezalakoa, ez zuen ez leiho ez aterik, zulo handi bat beheko aldean ate gisa eta nahiko. Bertara sartu nintzen, pixka bat beldurtuta, onartzen dut. Ez zegoen argirik eta kandela eder bat piztu zuten sartu baino lehen. Barruan, jende mordoxka ari zen afaltzen kandelen argitan. Hemen oso erromantikoa izango zena bertan beldurgarria zen. Ez nuen bat bera ere ezagutzen, denek irribarretsu agurtu ninduten eta nik ere berdin egin nuen. Afaria zerbitzatu zidaten eta bukatzerako denekin hizketan ari nintzen betidanik ezagutuko banitu bezala.

Goiza heldu zen, kanpoan zegoen oilarraren kukurrukuak esnatu gintuen. Esne pixka bat edan, ogi puska bat jan, zegoen ur apurrarekin

aurpegia garbitu eta hamabost minutura zegoen eskolara abiatu nintzen bi abade eta beste boluntario batekin. Eskolan irakasle lanetan aritu nintzen, bertan pasatzen nuen denborarik gehien. Argazkian ikusi duzun txabola hori da eskola eta inguruko dezenteena da. Beraien erropen antzekoak eman zizkidaten lehen egunean. Nik zer esan ez nekiela, hurrengo egunean, nire kamisetaren bat eramango niela hitz eman nien. Zuk esaten duzun kolore biziko jantzi hori pontxoa da eta ziur egon horrelako bat nuela baina ez zen urdina, nire begien koloreko pontxoa zen, hainbat berde desberdinez osaturiko jantzia hain zuzen eta nahi baduzu nagusia egiten zarenean zuretzat har dezakezu. Ados?

A! Ez zait ahaztu nire belarretakoei buruz esan duzuna, eh? Ez zait batere gustatu! Ja, ja! Egia esan, niri ere ez zaizkit gustatzen baina edozeinek ez dio egingo kontra amonari... Beno, Perun izan nuen esperientzia kontatzen jarraituko dut. Ez gara konturatzen zenbat daukagun ezer ez izan arte eta ez dut hori zuri gertatzerik nahi. Egunero gauza bera egiten nuen, esnatu eta eskolara, afaldu eta ohera. Egunak pasa ahala ikasleak hobeto ezagutzen hasi nintzen eta hainbat istorio negargarri entzun nituen.

Esaterako, hamabi urteko neskatxa bat dut gogoan, begiak beti urtsuak, aurpegia zikina, hainbat zauri eskuetan... Behin eskolara berandu etorri eta zergatia galdetu nion momentuan negarrari ekin zion. Ez nekien zer





egin eta besarkada handi bat luzatu nion. Lasaitu zenean nire galderari erantzuna eman zion. Berandu heldu zen bere ama lurperatu behar izan zutelako eta, berarekin batera, anaia jaio berria. Ez batak ez besteak ez zuen indarririk izan aurrera egiteko. Ama ahulduta gelditu zen haurra izan ondoren, ez zen jaio berriari jana emateko gai izan eta haurrak ez zuen ahuntz esnerik edaten. Handik aurrera munduan bera eta bere aita bakarrik zeuden. Istorio horrekin ulertu nuen egunetan nire buruari egindako galdera: begi haiek sufrimendua adierazten zuten.

Beste mutiko bat ere gogoan dut, zazpi urte inguru izango zituen. Deigarria zen mutil honen aurpegia, marka gorri handi bat zuen eskumako masailean. Honen begiek, berriz, nekea adierazten zuten eta klaseak ematen nengoela loak hartzen zuen beti. Behin marrazki bat egiteko esan eta koloretako arkatzak lehenengo aldiz banatu nituen. Mutil hau txunditurik zegoen margo haiekin baina, hala ere, ez zuen kolorez beteriko marrazki bat egin bere ikaskideen antzera. Berak beti erabiltzen zuen margo beltza eskuetan hartu eta bere burua marraztu zuen. Bere eguneroko eginbeharra islatu zuen paperean: lurra landu, uzta bildu... Marrazki hartan ulertu nuen bere begiek adierazten zuten nekea. Egun batzuk beranduago zera kontatu zidaten, bere masailean zegoen gorriunea behiak emandako ostiko baten ondorioz sortua zela.

A! Ahaztu baino lehen, argazkian nirekin agertzen diren bi haurrei buruz hitz egingo dizut. Neskatoak bost urte ditu eta zorteduntzat du bere burua eskolara doalako eta bertan, egunero, jateko zerbait duelako. Aitonamonekin bizi da, ez dakit zergatik. Amonak egiten dizkio pontxo politik horiek. Zuzen zabilta, oinutsik dabil, ez du zapatila batzuk erosteko lain. Txiki zenituen zapatila laranja haiek eman nizkion. Ez zituen etxetik jarrita ekartzen amonaren aginduz, ordubeteko bidaia egunero eginez, amonaren esanetan, zapatilak berehala apurtuko baitziren. Zure antza hartzen nion, ahots leuna, irribarrea beti ahoan. Ez zenituzten gustu berberak, neskato honek, Lupitak, asko atsegin zituen “glamourra” kentzen zidaten belarritakoak. Azken egunean nuen gozokirik handiena Lupitari eman nion, madari zaporekoa. Berak, besarkada handi batekin estutu ninduen bere gorputz txikiaren kontra eta sinistu egidazu, edozer egingo nuke besarkada hura berriz jasotzearen.

Mutilari dagokionez, Osbaldo zuen izena, Lupitaren neba zen eta hau ere aitona-amonekin bizi zen. Bere arrebarekin, lehen esan bezala, ordubeteko ibilaldiak egiten zituen eskolara etortzeko. Bost eta hiru urteko anaia- arrebak eskutik helduta urruntzean bihotzean min sentitzen nuen, hain ziren txikiak... Egun batean, etxerako bidean lagundu nituen paraje ederrez inguraturiko bide horixka batetik. Kantuan abiatu ginen. Aitona-amonak zahartxoak ziren eta etxera heldutakoan Lupitak, bietako nagusienak, behiak jetzi zituen .Hura ikustean izoztuta gelditu nintzen: hogeita hamar gradu zeuden kanpoan. Agur hotz bat esan ondoren etxerako bidea hartu nuen. Gaua Lupita eta Osbaldok lapurtu zidaten, ez nuen lorik hartu zugar pentsatu nuen arte. Zure irudiak lasaitu egiten ninduen loa nire jaun izan arte. Asko gogoratzen nintzen zutaz eta zenbat gauza dituzun galdetu eta zerrendatzen nituen nire buruan behin eta berriz. Egokia al da batzuek hainbeste izatea eta beste batzuek hain gutxi?

ZORIONAK!!!!!!! honezkero zure urtebetetze eguna da, oraintxe jo du kanpaiak goiko erreinuan. Aitona lagunekin hizketan dabil Laino plazako banku batean eta aingeru bati eman dio mezua bere partez ere muxu handi- handi- handi bat helarazi diezazun.



Zer eskatu duzun badakit, hala ere, nik ezin dizut ezer oparitu, baina agintzen dizut, urrun egonda ere oso ongi zainduko zaitudala.

Goiko erreinu honetan hodei artean pasatzen dut eguna. Laino plazan kafetegi bat dago. Izozkiz beterik dauka mostradorea: limoi, marrubi, mandarina, txokolate... eta holako izozkiz beteta.


Aitonarekin batera bizi naiz etxe zuri batean, dena zuria da. Sabaian familia osoaren argazkiak ditugu itsatsita, hortaz, gauero zuekin egiten dugu amets. Lehenengo egunean zu izan zinen nire ametsetako protagonista. Urte batzuk gehiago zenituen, mutil lagunarekin batera ni bisitatzen etorri zinen. Esan beharra daukat, mutil lagun ederra zela, ilea gaua baino ilunagoa zeukan, bere begiek zu argitzen zintuzten bi izar berde ziruditen eta hemen dauden aingeruek baina hobeto jotzen zuen pianoa. Zein izango da? Mikel edo Pablo?

Beno, Miren. Laster esnatzeko ordua duzu eta ez nuke agurtu gabe alde egin nahi. Gogoratu argazki horretaz eta ez ahaztu dituzun gauza guztiak baloratu behar dituzula. Eman besarkada erraldoi bat zure amari eta esan eguzkitako betaurrekoak kentzeko eta behar nauenean deitzeko. Negar tanta bat gehiago isuri ez dezan berarekin izango naizela agintzen dizut. Urtean behin bakarrik ager naiteke zure ametsetan, eta hori izango da urteroko nire oparia. Ez ahaztu asko maite zaitudala eta egunero hitz egin iezaazu, erantzunik jaso ez arren, dena entzungo baitut eta datorren urtean erantzun.

Muxu handi- handi bat bihotz bihotzez. Asko maite zaitut, Miren.







**Mikel  
Gandarias Jaio**

Akzesita 15-16 urteko sailean  
Kurutziaga Ikastola





## Merezi al du?


## Merezi al du?

Denboraren gurpilak bere azkeneko hiru jira-birak ematen dihardu istant honetan. Gorputza bi erresumatan banaturik daukat, sekulako gatazka dutelarik beraien artean. Batak, buruak, pertsona makalen gisara ez jokatzeko esaten dit; baina besteak, bihotzak, pairatutako minak eta egin dizkioten zauri sakon guztiak sendaezinak direla dio. Eta bi erresumen artean nago ni, Haimar.

Herri osoa ikusten dut hemendik. Bertara bizitzera etorri nintzenetik, ez da iragan egun bat bera ere ni leku paregabe honetara etorri ez naizela, muinora. Hala deritze nire “lagunek” behintzat. Inguruan eraiki diren lantegiei erreparatzen diet. Hasi dira jadanik gure airea gehiago zikintzen. Baina kutsadura ez dator eraikin horietatik, ez. Herrian bizi den jende maltzuraren ahoetatik ateratzen den kea da txarrena, bai horixe. Kanpotar batek ez luke sekula inondik inora horrelakorik nabarituko; oster, bertan bizilekua daukagun batzuk ederki dakigu zer den herrixka nazkagarri honetan gertatzen dena. Horregatik etortzen naiz muinora, hemen ez dago horrelako kutsadurarik.

- Denboraren gurpilari hiru bira besterik ez zaizkio geratzen eta lehenengoa martxan da dagoeneko- hasi zait bihotza.

Egia da! Erabaki beharra daukat. Batetik, buruak beldurtu egiten nau, kolpearen ondorioz sortutako mina behin eta berriz errepikatuz; bestetik, arrazoi sendo eta trinkoak ematen dizkit bihotzak, “Gogoan duzu eskolako lehenengo astean gertaturikoa?”



Arrazoi zuen bihotzak. Eskola berrira ohitzen nenbilela, nire ospea erabat zikinduko zuen gertakari bat gertatu zen. Egia esan, hasieran ondo konpontzen nintzen Xabi eta bere jarraitzaile memeloekin, baina pixkanaka-pixkanaka den denaz jabetzen hasi nintzen. Xabik, bere onurarako erabiltzen zituen lagunak: neskekin ligatzeko, ikasketetan lagun ziezaioten, jokoak eskuratzeko... Benetan penagarria beste guztiak horretaz ez konturatzea. Zer eskainiko ote zien Xabik horren truke? Bada ez dakit, ezer ez ziurrenik. Beno, ba gauza da, gorputz hezkuntzako saioaren ostean denok joan ginela zalapartaka aldageletara. Xabik, aldageletan berria nintzela ondotoxoz zekiularik, ezkerreko paretean zegoen ate berdea zabaltzeko esan zidan eta nik, inoiz baino inozoago, maratila leunari eragin eta hots txiki bat atereaz zabaldu nuen atea. Hor zegoen beste aldea. Ezaguna egin zitzaidan, baina ez nintzen ezertaz ohartu. Bihotza lehertu beharrean neukala sentitzen nuen eta ez nintzen gehiago begiratzen ausartzen, ikusi behar ez zen gauzaren bat ikustearen beldurrarengatik edo. Usain goxo bat sartu zen nire sudurretik eta birrikak erabat zabaldu zizkidan. Zerena izango ote zen usain hori? PUM!!! Bihotza lehertu zitzaidan. Lehenik hankak ikusi nizkion, baina segituan joan zitzaizkidan begiak ipurdi zurira. Atea itxi nuen eta sekulako burruna entzun zen beste aldean. Hain handiak ziren garrasiak, non nire belarriak minduta geratu ziren. Gorputz hezkuntzako irakaslea agertu zen momentu hartan eta bere esku erraldoiekin besotik gogor ebatuz, eta gainerako mutilen barre algaren konpainiarekin, zuzendariaren bulegora eramanez ninduen. Zorionez zuzendariak ez zidan ezertxo ere esan, baina bai berriro errepikatu ez zedin gertakari hura azpimarratu.

Egun hartatik aurrera hasi ziren gauzak zailtzen.

Eman du lehenengo jira-bira jada. Denbora ez da alperrik galtzeko, ez. Horretaz lehenengo ohartu dena burua da.

- Aizu lagun! Zure bizia guztiz aldatuko duen ekintza bat egin edo ez erabaki beharrean zaude. Gogorra izan behar duzu eta zure beldurrak gainditu. Aurre egin behar diezu zure bihotza hainbeste mindu duten horiei.

Baina bihotza bere arma garrantzitsuak ateratzen hasi da denboraren gorpila bigarren bira ematen hasi denean.

- Lagun on-ona. Gogoan izango duzu nire bizitzako erabakirik txarrena hartu zenuen eguna. Gogoratzen dituzu amaren hitzak? “Sekretua esaten eta askatasuna ematen”. Egun hartan ez zenion kasurik egin eta ondoren, damututa, hamaika negar egin zenuen. Eta nola gainera! Haiek ziren negarrak haiek! Inozoegi jokatu zenuen eta orain ondorioak ordaintzen ari zara. Neska guztiak zure aurka jartzea besterik ez zenuen lortu. Egia esan, Xabik, zure konfiantza irabazi zuen momentuan, dena kontatu zenion eta honek, segituan zabaldu zuen berria, Aitziberren ipurdi zuriaz maitemindu zinela, alegia. Neskaren belarrietara heldu zenean, triskantza ederra sortu zen. Atsegin ez zintuela eta, zure aurkako ekintzak burutzen hasi zen. Geroztik, denak daude zure kontra.

Ez nuen pasadizo hori nire oroitzapenen barnean, baina bihotzak, memoria freskatu dit. Malkoak jalgi dira une honetan nire begietatik. Beti esan dut negar egiteko hiru zergati daudela: pena, amorrua eta emozioa. Bigarren hau dela uste dut oraingo honetan. Amorrua, bai. Zeharo gorrotatzen ditut denak. Modu batean edo bestean, denek dute nire bizia kolokan egotearen errua.

- Baina egoera zailenek ere itzulipurdiak ematen dituzte gutxien espero duzunean.- jakinarazi zidan buruak bere ahots leunarekin- Ez ezazu etsi. Aurkituko dituzu lagun berriak eta zoriontsua izango zara. Ez du merezi biziarekin bukatzerik. Gainera, beste nonbait bizitza berri bat hasteko beti edukiko dituzu ateak zabalik. Pentsatu ondo erabakia lagun!

- Ez egin kasurik memelo horri! Ez daki zenbatekoa den zure bihotzak sentitzen duen mina. Horrela bizitzeko, hobe ez bizitzea! -egin dit oihu bihotzak- Hirugarren eta azken bira ematen ari da eta jada, berandu da atzera egiteko. Ez al dituzu gogoan egunero jasan behar izan dituzun burla eta erasoak?

Bai. Etengabe akordaten naiz jasan behar izan ditudan burlekin. “PUTO ESPAÑOL DE MIERDA!” Hauxe da gehien gorrotatzen dudana. Manifestazioetara joaten ez naizen bakoitzean errepikatzen didate gauza bera. Gero haiek izango dira lehenengoak gazteleraz berba egiten. Euskara hitz egin eta bihotzean daramana da nire ustez euskalduna, eta ez gazteleraz jardun eta manifestazioetara doazen horiek.





Min asko egin didan beste hitz bat “txulo” hitza da. Nor eta ni! Munduko pertsonarik umilena izaten saiatzen naizena. Ez dago munduan ezer gorrotagarriagorik, zerbait ez izaten saiatu eta zure belarriek etengabe entzun behar izatea.

Azkenik, neskek gure adinean egiten dituzten keinu horiek ez zaizkit batere gustatzen. Neskak, portaera arraroa izaten hasten dira titiak hazi eta hilerokoa jaisten zaizkienean. Nagusitasunez begiratzen zaituzte eta mespretxuzko keinuak errepikatzen. Beraien ondotik pasatzen naizen bakoitzean, zurrumurruak entzuten ditut. Behin baino gehiagotan joan izan naiz etxera eta nire logelatik irten gabe negar eta negar egin arratsalde guztian zehar. Ez dut negar gehiago egin nahi!

Erabakia hartua daukat eta, inoiz baino ziurrago nagoelarik, hirugarren pausoa eman dut. Salto egitea besterik ez zait falta. Buruak “Ez, ez, ez...” eta bihotzak “Bai, bai, bai...” esaten didate eta etorkizun iluna iragar dezaket. Eskuineko hanka muinoaren hegalean jarri eta 50 bat metro izango direla ikusi dut. Salto egin dut azkenik. Denek jakingo dute zer gertatzen izan zaidan, baina amaz akordatu nahiz gehien. BARKATU AMA!!!





**Leire  
Gorroño Albizu**

Akzesita 17-18 urteko sailean  
San Jose – Jesuitak ikastetxea





# Trenaren martxa

## Trenaren martxa

Paris, 10eme arrondissement. Gare de l'Est-en, Estrasburgorako lotunea izateagatik ezaguna, andenetako bankuetan zirrarez nahiz asperduraz itxaroten dute batzuek; ikaraz begiratzten diote zenbaitek erlojuari, esku artean duten billeteari eta panelei, denak batera ikusi nahian, gutxi batzuek lo kuluxka botatzeko aprobeztatzen duten bitartean. Ametsen hasiera edo amaiera izan daitekeen tren geltoki honetan, mutil gazte bat lasterka ikus daiteke maleta pilatuak daramatzaten makinak eta jendetza saihestuz. Trena galtzear dagoen hainbestetako beste bat dela suposatuz, inork ez dio garrantzirik ematen lasterketa bizi horretara bultzatu duen mutilaren istorioari.

“Azkeneko deia Estrasburgo, Zurich eta Munich-era doazen bidaiarientzat”.

Bere helburua lortu du azkenean: tren batera igotzen ari den neska gaztea. Ez dago agurrik, ez besarkadarik, ezta urrunetik bidalitako musurik bere aurpegiko diamante gogorretan. Trena martxan jartzen da, erortzen hasi berria den curiak uzten dituen hodei beltzen artean murgilduz.

- Barkatu, andrea. Libre al dago jesarlekua?
- Bai, noski. Eseri, mesedez.
- Jean Paul Le Croix nauzu.
- Charlotte Lagrange. Urte askotarako.

Txintxin hotsa airean, xanpaina nonahi. Ederto bizi dira aberatsak, herri xumearen kontura. Soineko gorri honek bere prezioaren besteko ikusmira sortzen du, antza. Pena da, agure artean alperrik galtzea.



- Xanpainik?

- Ez, esker... edo bai. Zergatik ez? Eskerrik asko- Azkenean, mutil gazte bat, bazen garaia.

- Ezagutzen al dugu elkar?

- Ez dut uste. Le Monde-ko kazetaria naiz. Le Grand jaunari eman berri dioten sariaren inguruko erreportajea bat egitera etorri naiz.

- Kazetaria? Eta zure identifikazio txartela?

- Txartelak bere xarma guztia kenduko lioke soineko honi. Ez duzu uste?

- Barkatu andereño, baina arauak betetzeko daude. Lagunduko zenidake?

- Txepel honek gaua hondatuko dit oraindik. Nora narama? Ez nau botako, ezta?

- Rodrigo, gonbidatuen zerrenda ikusi nahiko nuke andereñoaren nortasuna egiaztatzeko.

- Bai, jauna. Oraintxe bertan.

- Hemen nago. Elise Stella, Le Monde-ko kazetaria.

- Sentitzen dut zure hitzaz jelostu izana.

- Ez du garrantzirik. Azken batean, arauak betetzeko daude, ezta hala? Barkatuko didazu, komunera joan beharra daukat.- Libratu naiz azkenean inozo honetaz.

Komunera bidean, takoi luzeek eta ohitura ezak tapizarekin estropezu egitera eraman zuten, hala ere, trajez jantzitako beso gogor batzuek erorketa geldiarazi zuten. Adineko gizona zen Monsieur Le Grand, gaztetako gorpuzkera indartsuaren zenbait aztarna antzeman zekizkiokeen arren.

- Barkatu. Nahigabe izan da.

- Ondo zaude, eder hori?

- Bai. Eskerrik asko , eta zorionak, bide batez, sariarengatik, Le Grand jauna.



- Anitz esker. Barkatuko duzu nire zakarkeria, baina joan beharra daukat. Hitzaldia hastear dago.

- Noski.- irri deskriba ezina agertu zen haren begi berdeetan.

Pinguinoz jantzitako hamaika gizon haietako batek isiltasuna eskatu zuen mikrofono baten laguntzaz pertsonen trafiko sare bat eraistea lortu zuen gizonarentzat. Txalo zaparradaz babestuta igo zen Monsieur Le Grand eszenatokira.

- Zorionak, Gustav.

- Milesker, Christian. Momentu hau aprobe txatu nahiko nuke nire eskerrik zintzoenak emateko lan zail honetan buru belarri aritu den talde osoari. Batez ere, Madame Le Blanc-i, inolako meriturik bereganatu gabe, ikerketan zehar izandako egun beltzenetan lagun izan dudalako, beti ere diskrezioz, datu guztiak berrikusi eta karpetak gordetzeko prest. Aipatu behar ditut hala nola, Bonmarin eta Stephane jaunak, eurek horrela eskatu didatelako, ez beste ezerengatik. Ez, benetan, lan bikaina egin duzue. Eskerrik asko beraz, guztiei. Bestalde, une egokia iruditzen zait sarearen buruzagiaren nortasuna ezagutzear gaudela adierazteko. Beraz, jakin ezazue...

Gorpu handia zerraldo jausi zen lurrera, zarata izugarriak jendearen artean piztutako asaldura, medikuaren “hilda dago” diagnostiko atzeraezinak areagotuta geratu zelarik. Flash itsugarriak berehala hasi ziren lanean gorpuaren gainera salto eginez eta inguruko emakumeren baten oihuak itoaraziz.

Soineko gorridun emakume gaztea aterantz hurbildu zen handik irten nahian, ate zain erraldoiek bidea oztopatu ziotenean.

- Barkatu, andereño, baina debekatuta dugu inori irteten uztea, Le Grand jaunaren hiltzailea oraindik barruan egon daitekeenaren susmoak baitaude.

- Utzi iezaiozue, Jean Pierre. Nirekin dago eta.

- Ziur al zaude, Robert jauna?

- Bai.

- Ondo da.

- Eskerrik asko, benetan. Jandako zerbait ez omen zegoen egoera onean eta ez naiz batere ondo sentitzen.

- Ez eskerrik eman, mugikorraren zenbakia ematearekin nahikoa.

Hamaika ikusteko jaiok gara. Hori bai aurpegia hori. Baina beno, irribarre horrekin eskatuta, nola ukatuko diot bada? Gainera, erdi inuzentea izan arren, berari esker lortu dut hortik alde egitea.

- 067894687

- Hurrengo arte orduan.

Zain zuen auto ilunera igo zen irribarrea bueltatuz gogo txarra adierazten zuen aurpegi lirain hartatik.

- Lan bikaina, mademoiselle- mahai erraldoiaren atzean zegoen besaulki erraldoiagotik heldu zen ahots sakona- benetan bikaina.

Emakume gazteak irri apalaz eskertu zion goraipamena, bere begirada zorrotzak bestelakorik espero ote zuen galdetzen zion bitartean.

- Hemen duzu hitzartutakoa- emakumeak gizon lodikote hark mahai gainean utzi berri zuen billete more sorta poltsa beltz dotorean sartu zuen.

-Joan baino lehen, beste lantxo bat daukat zuretzat.

- Zertan datza?

- Ezagutzen al duzu emakume hau? -50 urte inguru izango zituen emakumearen argazkia eskaini zion.

- Aurrekoan akabatu nuenaren idazkaria.

- Horixe bera. Catherine Le Blanc. Nire gizonak jakinarazi didatenagatik, oso garrantzitsuak zaizkidan dokumentuak gordetzen ditu. Horregatik, zuk paper horiek lortzeaz batera, Madame Le Blanc akabatzea nahiko nuke, inork dokumentu horiek diotena ezagutzen duenaren aukerak ezabatzeko. Lan erraz, arin eta isila. Eta ondo ordaindua, hori esan beharrik ere ez dago.

- Zer informazio dago dokumentuetan?

- Ez zenidake galdera hori egin behar, andereño.

- Lana behar bezala egiteko, honen inguruko gauza guztiak ezagutu behar ditut.

- Pertsonen trafikoa egiaztatzen duten probak eta... nire izena. Egin ezazu astebete barru. Gauzak lasaiago egongo dira eta polizia gutxiago inguruan.

Larruzko ezarlekutik altxatu zen gizonaren begiradapean.

Kafetegira sartu zenean, izkina bateko goialdean kokatuta zegoen telebista modernoan Teleberria ikus zitekeen. Emakumeak bere ingurura begiratzen zuen, norbaiten bila. Azkenean, txoko lasai batean, leihoaren ondoan zegoen mahairantz hurbildu zen.

- Arratsalde on, Robert jauna.

- Dei nazazu Pierre mesedez -mutil gazteak emakumearen sotiltasuna aztertu zuen. -Eseri, mesedez. Zer nahi duzu edateko?

- Em... kafesne bat, mesedez.

- Garçon- mutiko gazte itxuraz hasi berria hurbildu zitzaien- kafesne bat faborez- berriz ere bere aurrean jesarrita zegoen emakumeari begiratu zion, segituan telebistari so egiteko.

“Vilmont polizi burua izendatu dute Le Grand jaunaren hilketaren ikerketaren arduradun. Vilmont jaunak ez du datu zehatzik errebelatu gura izan. Dena dela, zenbait froga eskuratu omen dituzte eta erruduna aurkitu arte gau eta egun lanean arituko direla hitzeman du”.

- Horrenbeste misterio hiltzaileak erabilitako tresna Errusiar ejertzitoak sortu berri duen eta azalean sartzean pozoi oso hilgarria askatzen duen aparailu nimiño bat dela aitortzeko. Teknologia berriek Parisko polizia beldurtzen dute, antza.

- Zuk nola dakizu, hori?

- Kazetari on batek dena jakin behar du.- Elisek irribarre gozoa eskaini zion.

Kafesnea eramán zioten eta biek elkarrizketari ekin zioten. Honetaz eta hartaz hitz egin zuten, beraien bizitzetaz, atsegin zituzten gauzetaz, kanpoan egiten zuen arrats itzelaz eta bururatzen zitzaaien hamaika gauzetaz, beti ere erakarpenaren jolasetan murgilduta.

Kanpoan eguraldi ezin hobea zegoela aprobetxatu zuten ibilalditxo bat egiteko hurbil zegoen parke txiki baina abegikor batetaraino. Musika talde xume batek, gaua alaitzen zuen edozein adinetako bikoteek ilargiaren eta kaleargi batzuen argitasun epelean dantzatzen zutelarik. Tenperatura freskatuz zihoan, Elise eta Pierren arteko espazioa gero eta txikiagoa bihurtuz.

Elisen etxeko atarira heltzean, Pierrek neskaren ezpain haragitsuak bilatu zituen.

- Gabon -mutila bira-erdi ematear zegoen, Elisek gerritik hartuta barrurantz eramán zuenean, gau zoragarri hura ahaztezin bilakatu.

Elisek mesanotxe gainean zegoen iratzargailua hartu zuen, oraindik begiak guztiz zabaldu ezinik zebilela. Eguerdiko hamabiak pasatxo. Nagiak atera eta irribarre jostalari batez gogoratu zituen azken orduetakoak, bere ondoan, oraindik berotasuna gordetzen zuen maindire arteko hutsuneari erreparatu.

Sukaldean egongo zelakoan, harantz zuzendu zen. Baina, Pierren orde, arrosa gorri leuna eta ohar bat aurkitu zituen.



*Sentitzen dut ezer esan gabe alde egin izana. Izan ere, lanera joan behar izan dut eta, hain goxo zeunden lotan, onena ez esnatzea izango zela pentsatu dudala.*

*Bart gauekoa zoragarria izan zen.*

*Laster errepikatuko denaren esperantzaz, musu bat,*

*P.*

Erromantikoegia beraren gusturako, baina, hala ere, ilusioa egin zion goizeko sorpresatxoak. Hozkailutik laranja zukua atera eta, edalontzi batera zerbitzatu ondoren, egongelarantz abiatu zen.

Besaulki erosoan eserita, begiratu bat eman zion agendari, burutzeko zuen lanerako 3 egun eskas baino geratzen ez zitzaizkiola konturatuz. Martxan jarri beharko zela eta, Pierre-eri Madame Le Blanc zelakoaren inguruko zenbait galdera egitea erabaki zuen. Baliteke hark ere ezagutzea, azken batean, bera ere hitzaldiaren egunean bertan baitzegoen, eta, beraz, zenbait datu eskuratzen hasteko, bide egokia izan zitekeela iruditu zitzaion.

Horrela ba, arratsaldean zenbait egiteko zituenez, hurrengo egunean deituko ziola determinatu zuen.

Beno, ba. Lanera. Hantxe dago. Zeinen galant dagoen alkandora horrekin, bere leiho ondoko txoko baztertuan... Aaaa! Kendu itzazu lelokeriak burutik, lan egitera etorri gara eta! Inoiz horrelakorik...

- Arratsalde on, Pierre.

- Zelan zabilta?

Hori bai izan dela behar den bezalako agurra. Aulkitik altxatu eta, lehendabizikoa, musu epela. Denak horrelakoak balira.... Beno, neska. Kontzentratu zaitez! Lanera.

Hogei bat minutuko elkarrizketaren ostean, Elisek bereari ekin zion. Monsieur Le Grand-en hilketa zela eta, egunkarian egin beharreko artikulua luzatzeko eskatu ziotela azaldu zion Pierri, honetan poliziarekin batera aritutakoei egindako elkarrizketak eta testigantzak agertu behar zirelarik. Hori zela eta, Madame Le Blanc ezagutzen al zuen galdetu zion.

- Bai, neska. Geure ama da.

Ezustekoak zoriontasunez bete zuen Elise, bere burmuinak abiada osoan ziharduen bitartean, zeregin hura inoiz burutu beharreko errazenetariko izango zela ospatuz.

- Nahi izanez gero, elkarriketa bat egiteko aukera eman diezazun eskatuko diot. Ez dut uste inolako eragozpenik jarriko duenik.

- Eskerrik asko, benetan.

Pierrek kafetegitik irten eta zerbait afaltzera joateko gonbidapena luzatu zion Elise-ri, honek gustura onartuz.

Sena ibaiaren ertzetatik pasioan zihoazela, ibaitik zehar bidaiak egiten dituzten bitartean afariak eskaintzen dituzten itsasontzi horietako baten aurrean geratu zen.

- Monsier Robert! -alaitasunez agurtu zuen sarrerako zerbitzariak.- Zure mahaia prest dago. Jarrai nazazue, mesedez.- Elisek txundituta begiratzen zion jatetxearen dotoretasunari. -Espero dut gustuko izatea.

- Milesker, François.

- Ez al da gehiegitxo?

- Atsegin izango zenuelakoan ekarri zaitut ba.

- Eta hala da, baina...

- Orduan, goza dezagun gauaz.

Janaria ahoan urtzen den horietakoa zen eta izarpean afalduz Pariseko monumentu ezagunenetakoak ikusteak giro aparta sortzen zuen. Postrea eta xanpaina ez ziren falta eta, hauen ostean, itsasontziaren atzeko aldera hurbildu ziren. Jendeak argi dirdirkariez estalitako hiriaren xarmaz gozaten zuen letrarik gabeko abesti bat jotzen hasi zenean. Abesti ezaguna zen. Hala ere, Elisek ezin zuen gogora ekarri haren letra ezta taldearen izena harik eta Pierre hurbildu eta gerritik hartuta belarrira gozogo, ezti-ezti kantatzen hasi zitzaion arte.



*... To tell the truth you know I have been hurting all along,  
Some way let me know, you want me girl.  
Every time you see me what do you see?  
I feel like I'm a poor man and you're the queen.  
Oh baby, you're the only thing that I really need.  
Baby that's why:  
You make me wanna call you in the middle of the night.  
You make me wanna hold you till the morning light.  
You make me wanna love, you make me wanna fall.  
You make me wanna surrender my soul.  
I know this is a feeling that I just can't fight.  
You're the first and last thing on my mind.  
You make me wanna love, you make me wanna fall.  
You make me wanna surrender my soul...*

Paris osoa desagertu egin zen bientzat bestearen besoetan babestuta elkarren begietan murgilduta eman zuten ordu haietan.

Pare bat egun barru Pierren deia jaso zuen. Madame Le Blanc-ekin, hau da, bere amarekin agindutako elkarrizketa izango zuenaren berri eman zion. Horrela, arratsaldean bere bila joango zelakoan geratu ziren, ondoren Pierren amarekin elkartzeko.

Bostak inguru ziren. Elisek hainbat aldiz birpasatuak zituen jada gauza guztiak, detaile txikiak ere ihes egiten ez zionaren ziurtasun osoa izan zuen arte. Dena prest zegoen: arropa eta orrazkera egokiak, galdera inuzente baina egi itxurakoez betetako karpeta dotorea...

Ispilu aurrean jarri zen makillajeari azken ukituak ematekotan, baina han aurkitu zuen irudiak ez zuen batere ondo sentiarazi. Lehenengo aldia zen horrelako zerbait gertatzen zitzaiona. Burua ulertezinak zitzaizkion hamaika ideiek kolpatzen zioten, bat-batean, gizon lodikoteak erakutsitako argazkiaren jarraian, Pierren aurpegia, flash baten antzera, gogora etorri zitzaionean.

Azkenean, zentzazio txar hori usatzea lortu zuen txirrin hotsaz batera.

Autoan, Madame Le Blanc-en etxerantz bidean, normaltasunaren plantak egiten saiatu zen arren, ohikoak ez ziren isilaldi luzeak izan ziren.

Gidakidearen eserlektuk begiratzon zion, hain hurbil egonda, hain urrun sentitzen zuen mutilari. Pierre-ri zelatua sentitzeak eragiten zizkion galderaz betetako irriak behartutako irri eta begirada nahasiez erantzuten zituen Elisek.

Auzune abegitsu batean zegoen etxetxo politera heldu ziren. Behin aurkezpenak eginda, Pierre bakarrak utzi zituen bi emakumeak lasaitasunez lan egin zezaten. Biak elkarrizketa alai eta interesgarri batean murgildu ziren, noizbehinka Elisek bere zerrenda amaigabeko galderaren bat tartekatzen zuelarik.

Ordu bete igaro zen ia konturatu ere egin gabe, Elisek leku hartara eramane zuen helburua zein zen gogoratu zuenean.

- Barkatu Catherine, komuna mesedez?
- Korridore horretatik ezkerretara hirugarren atea.
- Merci beaucoup.

Aitzakia jarrita sarrerako atearon ondoan jarrita zegoen segurtasun dispositibora zuzendu zen birritan pentsatu gabe. Gona pixka bat altxatuz, ligeroan zituen tresnetatik bat aukeratu eta tapa ireki zion aparailuari. Kable batzuk ebaki, besteekin lotu eta ukitu magikoa: nahi zuenean, inolako alarrik aktibatu gabe, etxera sartzea ahalbidetuko zion aparatua.

Logelara itzuli zen Pierre iritzi baino instante bat arinago.

Egun bikain, zoragarri eta zoriontsuak izan ziren hurrengoak eta, aldi berean, bere bizitzako zailenatarikoak. Ez zuen inoiz horrelakorik bizi izan, beste baten sentimenduenganako ardura, inori min egitearen beldurra... Bi pentsaera kontrajarrien lehia gogorra antzeman zezakeen bere barnean.

- Badira bi egun epea bukatu zela andereño -izugarritzko sustoa eman zioten bere apartamentuko besaulkian eserita zegoen pertsonen trafikatzailak eta bere gizonek.- Zutaz oso ondo hitz egin zidaten lagun batzuek, baina, badirudi, ez zarela dioten bezain profesional jaioa.

- Barkatu, jauna, baina egin beharra konplikatuta duten zenbait gertaera eman dira eta...



- Aitzakiek ez dute balio. Bi egun dituzu. Ez nuke nahiko berriz ere hemendik etorri beharra izaterik panpoxa. Ulertzen didazu, ezta?- Elisek kokotsetik oratzen zion txokor usaindun eskua baztertu zuen.

- Ezin hobeto.

- Bonsoir orduan.

Puta seme horrek arrazoi osoa du. Ni ez naiz horrelakoa. Bigunagoa bihurtu naiz. Ezin dut onartu gizon batek nire bizitza hankaz gora jartzea, berarekin egotean, gertu sumatzean, bere besoez inguratuta esnatzean... errealitate osoa desagerraraztea lortzen badu ere. Hau ez naiz ni. Ezin diot nire izaerari uko egin, ezin diot neure buruari lepoa eman. Nire bizitzan ez da sekulan sentimenduentzako lekurik izan, ezta izango ere. Bada garaia txorakeria honekin bukatzeko.

Ordu txikietan auzo abegitsura abiatu zen. Etxera sartzeak ez zion batere arazorik sortu aurreikusitako zitekeen moduan. Logelara abiatu zen, Catherine ohean, gozo-gozo, ametsen munduan murgilduta aurkituz. Begiak itxi eta, barrenetik indarrak atereaz, bekokian tiro egin zion. Inor ez zen gertatzen ari zenaz ohartu, ezta Madame Le Blanc bera ere. Potoloak esan bezala, lan erraz, arin eta isila.

Pierrekin zegoen berri latza telefonoz eman ziotenean.

Bere burua konbentzitzen saiatu arren, ezin izan zuen mutila ikustera bultzatzen zuen bulkada saihestu. Hiletara azaldu zen. Gorpua kanposantuan lur ematen ari zirela, urrunetik behatzen zituen bertan zeuden guztien aurpegiak, batez ere, Pierre-ena. Saminak, egunetako negarrak, itxura mingarria ematen zion gizon gazteari.

Elisek ezin izan zuen kontzientziaren taladroak buruan egiten ari zitzaion zuloaren zarata denbora gehiagoz jasan eta, taxi bat hartuz, alde egin zuen Pierre bere presentziaz konturatu zela ohartu gabe.

Non utziko nituen maleta malapartatu horiek? Ospa egin behar dut neure burua gorrotatzen hasi baino lehen. Zenbat eta arinago hobe. Berarengandik urrundu beharra daukat. Mingarriegia da. Aaaa! Non sartuko nituen zapata garesti haiek? Hemen daude. Hori da. Gauza guztiak zorrotan sartu eta

dena berria den toki batera joan. Dena ahaztu. Ni izaten jarraitu.

Nor ote da orain? Ez, mesedez. Uler nazazu, ezinezkoa zait zurekin hitz egitea. Parka iezadazu, faborez.

Mugikorra amatatzea onena. Pantailan berriz ere “Pierre” ikusiz gero zoratu egingo nahiz eta. Dena dago?

- Bonjour. Le Monde egunkaria? Elise Stella kazetariarekin hitz egin nahiko nuke.

- Segundotxo bat, s’il vous plaît.

- Bai, esan?

- Elise, Pierre naiz. Hiletan ikusi zaitut eta...

- Barkatu, nor diozu zarela?

- Pierre. Mesedez, ez iezadazu adarrik jo. Le Grand jaunari emandako sariaren festan ezagutu genuen elkar. Pierre Robert.

- Sentitzen dut monsieur, baina erratzen ari zara. Azkenean ez bainuen festa horretara joaterik izan. Artikuluaz nire kide bat arduratu zen.

- Hori ezinezkoa da... ez... ezin liteke...

- Hala da.

- Ondo da. Barkatu eragozpenak.

Oraindik txantxa txarren bat izango zenaren ideiaz buruan, “Elisen” apartamenturantz jo zuen Pierrek, gertatzen ari zenak guztiz nahasita zuelarik.

- Sentitzen dut, jauna. Duela ordu erdi inguru alde egin du Gare de l’Est-erantz eskuan bere ondasun guztiak zeramatzala. Pierre Robert bazara, ohar bat utzi du zuretzat. -atezain lanetan aritzen zen adineko emakumearen erantzuna.

Gurago dut koldarra izateagatik, errealitateari, egiari aurre egiteko ausardiarik ez izateagatik, bide errazena edo behintzat malakar gutxien dituen hartzeagatik gorrota nazazun, hemen geratu eta naizena naizelako gorrota

nazazun baino. Azken batean, ez baitago ezagutzen ez dena gorrotatzerik.

Inoiz barkatuko ote nauzu?

- Gare de l'Est esan duzu ezta?- galdetu zuen garrasika mutilak kotxerantz lasterka zihoala.

- Bai! -emakumeak erratza hartu eta zorua garbitzen jarraitu zuen.-  
Gizajoa.

Bukatzear dago dena. Minutu batzuk barru tren horretan egongo naiz. Eserleku erosoetan jesarrita, bizitza berri baterantz bidean, Pierrengandik ehunka kilometrotara dagoen bizitza baterantz bidean. Aski da! Burutik atera behar dut!

Sinistu egin behar dut ez ditudala berriz haren ezpainak ukituko, haren besoetan babestuko, haren gorputzaren berotasuna sentituko, haren usaina sumatuko... eta horrela hobeto dela, bai berarentzat eta bai niretzat. Bizitza hiltzaile batekin igarotzea baino gehiago merezi du. Eta ni ere ondo egongo naiz, horretaz nire burua konbentzitu beharra badut ere.

Zer egiten du hemen? Ezin dut orain atzera egin. Ahalegin txiki bat baino ez zait geratzen. Lortuko dut, bizitzan lortutako guztiak bezala. Agian, musu bat, hitz bat... bat baino ez, azkena.

“Azkenengo deia Estrasburgo, Zurich eta Munich-era doazen bidaiarientzat”.

Ez. Pufff. Iritzi da ordua.

Ez atzera begiratu. Hori da. Jesarleku hori ondo dago. Ai ama. Han dago. Zergatik jarraitzen du begira? Zergatik uste dut ez dudala sekulan eszena hau ahaztu? Zergatik barruko korapiloa, bularraldeko sakada? Mesedez, ez.

Ezinezko da hau baino sentimendu indartsuagorik egotea, min egiterainoko maitasuna baino handiagoa den sentimendurik egotea.

Esaldi hau idatzi zuen eskuartean zuen liburuaren azken orrialdean. Trena martxan jarri zen. Begirada leihoko kristalean finkatuta, negar malko bat masailetik irristatu zitzaion, hasi berria zen euri tantak kristala bustitzen zuten antzera. Trena hodei beltzen artean murgildu zen.



Au revoir, mon amour.

- Barkatu, andrea. Libre al dago jesarlekua?

- Bai, noski. Eseri, mesedez.

- Jean Paul Le Croix nauzu.

- Charlotte Lagrange. Urte askotarako.

- Lan bidaia?

- Ez. Neba baten ezkontzara noa, ama eta anai-arreba guztiak Estrasburgon bizi baitira.







**Modesto  
Arrieta Illarramendi**

Irabazlea 18 urtetik gorakoen  
sailean

*Irabazlea*  
*gorakoen*  
*sailean*



# Noraren egunkaria

## Noraren egunkaria

### **Martxoak 5 (Igandea)**

Uste dut Ingalaterrako erregina izan zela “Annus horribilis” esan zuena, berari eta bere senideei makina bat zorigaizto gertatu ondoren. Gaur, aldiz, nik esan dezaket nire “egunis horribilis” izan dela, autoa autopistan pot eginda geratu baitzait eta ia bi ordu egon behar izan dut, txaleko fosforittoa jantzita, gabonetako zuhaitz baten antzera, garabiaren zain. Erradiadorea zulatuta eta kulata (hori izen xelebrea) erreta omen dauka Opel Kadet gizajoak, esan dit mekanikoak. Konponketa dezente igoko dela, baina ondo aztertu arte ezin duela esan zehatz. Bihar biharkoak. Gero, etxera joan naizenez, giltzarik gabe nengoela konturatu naiz. Oraingoan aguazil baten bila joan, etxera ekarri, atea palankaz ireki lapur merke baten antzera, eta etxean sartu ahal izan dut. Nire “mila esker” beroak, “bihar arotz batek konponduko du” erantzun hotza jaso du. Etxean sartu eta arropa eransten hasi orduko konturatu naiz hilekoa jaitsi zaidala. Altza porru!!!, zergatik ez, eguna borobiltzeko. Eta gainera bihar autobusez joan behar lanera Donostiara. Azken aldiz autobusean ibili nintzenez zutik joan behar izan nuen, eta ia pneumonia bat harrapatu ere, bi euroren truke. Benetan gaurkoa nire “egunis horribilis” izan da. Kontsolamendu bakarra geratzen zait: biharko eguna ezin dela okerragoa izan.

### **Martxoak 6 (Astelehena)**

Autobusarena ez da hain grabea izan. Zortziak eta laurdenez jende asko joaten da Donostiara erdi lotan eta Zumaia-Getaria-Zarauztik hiru autobus urdin, bikoitz horietakoak, abiatu dira. Egia esateko, bere orduan

etorri da, baina oso garestia izaten jarraitzen du. Orain abonu motaren bat badagoela ere entzun dut autobusaren zain nengoela. Erdiko atearen aurreko eserlekuan eseri naiz, seguru aski Zumaitik zetorren ni baino lauzpabost bat urte gazteagoko neska baten ondoan. Musika entzuteko kaskoak zituen belarrietan eta nire *kaixoari* begiak altxa dizkio, ezer esan dudarik ohartu gabe, baina ondoan esertzen ari nintzela konturatuta. Bere begi beltz eta handiak aurkeztu dizkit, haur batek bere jostailu preziatuena erakusten duen bezalaxe, eta, nola ez, bere begirada bilduaren jabe egin naiz, nire magalean pausatuz, Donostiako bidean pixkanaka dastatzen joateko. Irribarre ia antzemanezin bat ere ihesi zaiola iruditu zait, baina agian gehiegi pentsatzea da; “pelikulera” xamarra naizela esaten dit Edurnek, ondo baino hobeto ezagutzen nauen betiko lagunak. Gero, begi belzdunak kaskoak belarrietan doituz, musika entzuteari ekin dio berriro. Pena eman dit unibertsitateko geltokian jaitsi denean.

Lanean nire nagusiari, garai batean “don Antonio” esaten omen zioten, ia hozkada egin diot, birtuala noski, modu txarrean etengabeko purrustadekin zigortu nauelako, lan gehiago egin behar nuela eta, ez dakit zenbat gauza esan dizkidan. Babo arraioa....

Tailerrera ere deitu dut eta hor ere kristoren ostikada eman didate; konponketaren aurrekontua 490 euro eta ostiralean azken ordurako listo egongo dela. Nondik atera behar dut dirua?

Aste guztian autobusean joan behar Donostiara lanera. Kaka zaharra. Begi-beltza joango balitz sikiera, gaitzerdi.

### **Martxoak 7 (Asteartea)**

Bai, bai, berriz Begi-beltzaren ondoan joan naiz Donostiaraino. Hitzik egin gabe, baina gaur bai, gaur irribarrea niretzat izan da. Berarengana iritsi naizenean *egun on* esan diot gozo-gozo. Berak buruarekin baieztatu du eta bere begiak eskaini dizkit berriro, beltzak, beltzak oso, handiak, handiak oso, inguratzen, barneratzen eta biltzen zaituzten horietakoak. Gainera, gaurko begirada oraindik gardenagoa, sakonagoa iruditu zait; xamurragoa eta gozagoa ere bai. Ile beltz motxa, oso motxa aurretik, atzealdean ile-motots bat goma batekin bilduta eta nik ikusten



nion belarri bakarrean, zilarrezko uztai mehe bat, handia, erraldoia esango nuke, bertan kulunkatzeko modukoa. Ai, ze txolina naizen... Zerbait esango nion gustura baina ez nekien zer esan eta ez naiz ausartu isiltasuna eteten. Jaitsi denean, damutu egin naiz, agian azken aukera galdua nuelako.

Marmarrean joan naiz lanera eta gaur nagusi madarikatuari nik egin dizkiot purrustak. Dagoeneko, nazkatuta nago, bai berarekin, baita inguruko guztiekin ere. Gaur zera esan dit txotxolo nazkagarri horrek: “gaizki egin al duzu lo, ala? “

### **Martxoak 8 (Asteazkena)**

Ezin dut sinistu gaur gertatutakoa. Begi-beltza ez zegoen gaur leihatilaren ondoan eserita, pasillo ondoan baizik, eta bere aurretik pasa behar izan dut bere ondoan eseri ahal izateko. Ai, ama!... kamara geldoan eszena bat emeki-emeki gure begi aurrean igarotzen denean bezala. Berak nahiko leku utzi ez eta ni pasatu ezinik ibili naiz. Bizkarra ematen nion eta nik gerria mugitzerakoan bere aurpegia imajinatu dut, bere begi beltzak begirada irribarretsu eta lotsagabean zarabandan. Nahita izan da, seguru nago, eta nire zangosagarrek bere belaunak lastandu dituztenean urduri jarri naiz, nerabe baten antzera. Zirrargarria izan da. Zirrargarria oso. Bihotzeko taupadek buruan egin didate oihartzun eta lotsatu eta dena egin





naiz. Une batez, txoferra ere atzeko ispilutik begira genuela iruditu zait. Bihotzeko taupadak buruan pausatu direnean, nire aurpegian beroa eta gorritasuna nagusitu dira. Eseri eta hamar segundo behar izan ditut nire onera etortzeko. Begi-beltzari esker oneko irribarrea eskaini diodanean, berak ordainetan eskaini didana, edonor liluratzeko modukoa izan da, aurpegian argia piztu balitzaio bezala. Gero ezer esan gabe, erdi lotsatuta baina pozik, goxo-goxo Donostiaraino joan gara. Isilik. Alde egin duenean berriro damu nintzen ezer ez esateagatik.

Lanera iritsi naizenean, pozik eta kantari sartu naiz bulegoan eta nagusiaren aurretik pasa naizenean, inozo alu hori ezin egon ezer esan gabe: “Gaur loteria tokatu al zaizu, ala?”. Nire mahaian eseri eta ordenagailua pizten nuen bitartean autobuseko eszena gogoratu dut geldiro, begiak itxiz, gozatuz, dastatuz....

Bihar gona jantzita joango naiz eta gutxienez izena ere galdetu behar diot.

### **Martxoak 9 (Osteguna)**

Sinestezina. Begi-beltza ere gonarekin joan da gaur. Bere aurretik pasatzen eta nire eserlekuan esertzeko behar izan dudana denborarekin *Guinnessen* errekorra segurua gaintu dudala. Seguru. Belauna nire bi izter tartean kokatu du nik aurrera egin ez nezan. Nire zangosagarrek bere belaun epel eta hezurtsuak ukitu dituzte, igurtzi ere bai esango nuke, eta nik bizkarra emanaz nire gerrialdea mugitu dut bere mutur aurrean, aurrera egiten nuela itxura eginez, eta orduan nire aldaketan bermatu ditu bere eskuak suabe, oso suabe. Oilo ipurdia nagusitu zait azalean. Segundo horietan denbora gelditu da. Hilik. Espazioaren hutsuneaz jabetzen zarenean eta infinituaren erdian erreferentziarik gabe geratzen zarenean bezala. Eseri ostean bere izena galdetu diodanean hatz erakuslea ezpainetan jarriz ez hitz egiteko keinua egin dit, kasko bat luzatuz, nik ere bere musika entzun nezan. Abesti guztiek nesken izenak zituzten izenburutzat, Policeren Roxanne, Rollingen Angie, Eric Claptonen Layla, Susie Q,... Agian, neska horietaz maite-mindurik dago, agian neskak gustatzen zaizkiola adierazi nahi izan dit, agian abestien letretan mezu ezkuturen bat zegoen... baina nik ez nuen ulertzen ingelesez esaten zutena.



Alde egiterakoan, pinganiloa itzuli diodanean, bere esku mehe, epel eta dardaratiak nirea laztandu du eta berriro hitz egin gabe aldendu gara, begirada xamurrak trukatu.

Gero lanean komunean sartu naiz zuzenean, nagusiaren txorakeriak ez entzuteko. Norbaitek komuneko atea ere jo du bortizki. Seguru nagusi mozolo arraio hori izan dela, irten naizenean inor ez baitzegoen zain.

### **Martxoak 10 (Ostirala)**

Jesus, Maria eta Jose.....Beno, beno, beno,.... Gaur gona motxago batekin joan naiz eta zer izan da hura..... Bere aurrean kokatu naizenean, une bat geratu naiz, istant bat, segundo bat esango nuke, edo bi, agian hiru eta bere esku-ahur leun eta beroa sentitu dut izter artean, ezker izterretik gora, poliki, astiro-astiro, eternitatearen bila. Nire izterren berotasunak bere eskuarenarekin bat egin du, masailetan pausatuz. Aurpegia irakiten sentitzen nuen. Begiak itxiz, burua atzerantz luzatu dut, eternitate inguruko beroaldia, gozotasuna, zirrara eta zorabioa, guztiak nahasturik, koktel koloredun eta zaporetsu bat dastatu nahian. Bat batean, bere eskua goitik behera abiatu da, berriro poliki-poliki, eta eternitatetik itzultzerakoan, esku-gaineko hezurtxo gogorrek nire eskuin izter biguna laztandu dute gozotasun handiz, berriro mantso-mantso. Hotzikara ezti batek nire bizkar hezurra zeharkatu du tximista baten antzera. Elektrikara moduko bat ere sentitu dudala iruditu zait. Kanpaiak ere bai nire burmuinean, oihartzun eta guzti. Txoferrak bozina jo du. Gaur ere guri ari zitzaigula pentsatu dut. Erdi zorabiatu eta oraindik dardara batean egin dut aurrera, eta eserlekuan erortzen utzi naiz, izterrak estutuz eta kuleroak busti-busti neuzkala konturatuz. Oraindik begiak itxita nituela eskutik heldu dit eta oraingoan berak jarri dit belarrian pinganiloa. Egia esan, ez dakit zer musika zen, ez zitzaidan inporta ere, eta xamur-xamur Donostiaraino joan gara. Alde egin baino lehen, hatz erakusleaz masaila laztandu dit, eta nik buruaren baiezko xume batekin eskertzen eta onartzen nuela adierazi diot.

Laino batean sartu naiz gaur lanean. Nagusia begira geratu zait harrিতuta. Ez zaio ezer bururatu esateko, baina nire bizkarrean sentitu ditut iltzatuta bere begi “makarrosoak”.

Arratsaldean, lanetik etorri naizenean, autoa jaso dut. Ondo geratu dela esan dit mekanikoak. Nahiko nuke... ia 500 ¢ ordaindiz gero. Hemendik aurrera, eta autoa hobeto zaintzeko, autobusean joango naiz lanera abonua hartuta.

### **Martxoak 12 (Igandea)**

Atzo ile-apaindegira joan nintzen eta ilea moztu nuen, dezente. Ile-apaintzaileak “garçon” erara moztu zidala esan zidan. Ea Begi-beltzari gustatzen zaion.

Ez dut gaizki pasatu asteburua, baina gezurra badirudi ere, besteetan baino luzeago egin zait. Edurnerekin zinemara joan naiz. “Brokeback Mountain” ikusi dugu eta bioi asko gustatu zaigu. Hala ere, oraindik ez diot ezer esan Edurneri. Agian, datorren asteburuan kontatuko diot Begi-



beltzaren lilura nolakoa den eta eternitaterako bidezidorra nola jorra daitekeen. Zeinek esan behar zidan astelehena iristeko irrikan egongo nintzela, eta nire nagusiaren purrustadak txorakeriak irudituko zitzaizkidala?

Biharko, idazteko orria prestatuta utziko dut, handiz eta azpimarraturik, egun handia izango delakoan nagoelako. Agian nobela bat idazteko adinakoa... Agian harreman bat hasteko modukoa...

**Martxoak 13 (Astelehena)**

.....  
.....  
.....





**Garazi  
Sarrionandia del Hierro**

Irabazlea 15-16 urteko sailean  
Kurutziaga Ikastola



## Nire maitea

Ezin ikusi, ezin ikutu,  
ta entzun oso gutxitan,  
hortxe al zaude edo hementxe  
edota beharbada han.  
Klase orduan entzuten zaitut  
beste batzutan tabernan.  
Bila ta bila zure atzetik  
ea topatzen zaitudan.

Faltan somatzen zaitudanean  
gauero sartzen zait mina,  
askoz hobeto lo egingo nuke  
nire alboan bazina.  
Gu elkarrekin egon gaitezen  
egiten dut ahalegina,  
zelako zaila egiten zaidan  
nahi izana ta ezina.

Pentsa ta pentsa gauero nago  
zu ezagutzeko irrika,  
egunen baten egingo al duzun  
nire ametsetan bisita.  
Lauterdietan lokartutzen naiz  
burkoa guztiz bustita,  
konturatu naiz zutaz nagola  
ni maitemintzen hasita.

Egunen baten iritsiko da  
ezagutzeko garaia,  
seguru nago izango dela  
momentu latz eta zaila.  
Momentu zaila pasatuko da  
ta izango naiz alaia.  
Gu elkarrekin maitemintzen  
horixe de nire nahia.

Atzo gauean egin zenuen  
bisita ametsetara  
eta astiro esan zenidan  
xuabe belarrietara:  
Zaindu nazazu ta defendatu  
ni hitzegiteai ez laga.  
Oraintxe bertan konturatu naiz  
nire maitea euskera da.







**Eñaut  
Uruburu Martinez**

Irabazlea 17-18 urteko sailean  
Ibaizabal Ikastola

*Irabazlea*  
*17-18*  
*urteko*





**Ama, zergatik...?**

“Ama azkenaldian  
sentitzen naiz txarto  
ez dakit den alperrik  
galdu naizelako  
beraz, galdera batzuk  
ditut zuretzako”  
“Erantzungo dut baina  
ez hartu aintzako”

“Bizimoduak zerbait  
ematen al dizu?”  
“Seme oraindik ia  
ezer ez dakizu  
infernua bihurtu  
leike paradisu  
baldin eta begiak  
ixten bazaizkizu“

“Ta zeri deritzozu  
begiak ixtea?”  
Parean duzunetik  
bista murriztea  
ez ote litzateke  
gauza bat tristea  
sinistu behar dena  
ezin sinistea?”

“Eta zer da sinistu  
behar genukeena?”  
Ezer gutxi nahiz batzuk  
dioten “gehiena”  
ahal dela egiaren  
bueltan dabilena  
ta egiz jantzitako  
gezurra ez dena»

“Baina zer da gezurra  
ta zer da egia?”  
“Nondik begiratzen den,  
horra komeria!  
gauza bakoitzak dauka  
bere aurpegia  
ta alderantziz dela  
esan leike ia”

“Gauza bakoitzak bere  
aurpegia al du?”  
“Ba bai, nahiz eta beste  
era baten saldu  
seme, guztia ezin  
dudanez azaldu  
ikusi, ikasi ta  
bururik ez galdu!”

